


Gezala

AUDITORIUMA

K
U
L
T
U
R
A
K



JAZZ KONTZERTUA

► **JERRY GONZALEZ eta JAVIER COLINA**

Maiatzak 5 ostirala 22:30etan
GEZALA AUDITORIUMEAN

Sarrera
10,00 €

Kontuz! Ez zaitez kontzertu honetara joan gabe geratu! Donostiako Jazzaldia balitz eta Jerry Gonzalez eta Javier Colinak eskaintzen duten kontzertua ikusi nahiko bazenu bi gauza egin beharko zenituzke: 1) Sarrerak aldeztu aurretik denbora askorekin erosi. 2) Trinitate plazan sartzeko ia San Telmorainoko ilarran itxaron!

Puerto Ricon jaiotako New York-tar hau jada legenda bat da Jazzaren munduan. Drogak, hispanoen eskubide sozialak aldeko konpromiso sozialak eta batez ere musika izan dira bere irudia marrazten lagundu duten trazuak. Jazz Latinoaren barruan sailkatzen badute ere era guztietako kolaborazioak egin ditu. Diego Cigala, Niño Josele edo Javier Limón bezalako artistekin esaterako. Tronpeta jole eta perkusionista, eserita egon arren hankak mugitu araziko dizkizun erritmoak ateratzeko gai da edonori.

Javier Colina, berriz, ez da hain urrutikoa. Iruñean jaioa kontrabaxua jotzen du eta hainbat taldetan aritzeaz gain, honek ere aparteko kolaborazioetan parte hartu izan du: Chano Dominguez, Martirio, Enrique Morente...

Jerry Gonzalez 1992an eta Javier Colina 1996, 1997 eta 2004ean etorri izan dira Donostiako Jazzaldira. Orain biak batera Lezoko Auditoriumean!

ERAKUSKETAK

► **Mikel Illarregi "IRUDITZA" Argazkiak eta olerkiak**

Maiatzaren 2tik 31ra • 09:00 - 13:00 (Astelehenetik-Ostiralera)
KULTUR ARETOA (DONIBANE KALEA 2)

HOTZ, IZOTZ,
(IZOTZ PUTZUARI)

Holza,
barkuraino hozte guzu bihotza.
Hortxe lurrean etzanda,
zerutik erortako uraz edanda.
Hankazpian kraskaka,
oina eta kristala talka.
Hots, hotzaren hotsa,
urratutako izotza.

1959an Gaintxurizketan jaioa bost urterekin Trintxerpera eraman zuten gurasoek, 1980. urtera arte. Handik Leitzara joan eta bertan geratutakoa da Mikel Illarregi. Lanbidez irakaslea bada ere, bokazioz eta izatez artistatzat jo genezake bere ibilbidea. Artelan ezberdinetan aritua: egurra, harria, argazkigintza, idazle lanetan... Azken diziplina honetan sari batzuk irabazitakoa da: Bermeon Olerki Sarian bigarren, Bortziritako Sarian bigarren, Marrodan Olerki sarian sariduna (liburua argitaratua dago).

Erakusketa hau argazkiekin eta olerkiekin osatu du. Guztira 70en bat argazki eta 15 poemekin osatutakoa izango da erakusketa. Olerkiak gai ezberdinetan oinarriturik daude: itsasoa, begirada, lainoa... eta argazkiek mezu hori osatu eta gehiago edertzea dute helburu.

Euskal Antzerki Topaketak

GEZALA AUDITORIUMEAN

HELDUEN ANTZERKIA ▼

Maiatzak 12 ostirala 22:30etan • Sarrera: 5 euro

Bazen behin clown...

“eta, zergatik ez”

Eta, zergatik ez? Errealitatean oinarritutako gertaera batetik abiatzen da. Bazen Behin Clown... taldearen lehenengo antzezlan da honakoa. Donostiako XVII gazteen antzerki topaketetan talde interpretazio hoberenari saria jaso zuen.

Bertan ezintasuna lantzen da. Ageriko minusbalia batetik abiatua pertsona guztiak ezintasunak ditugula adierazten ditu. Hori jakina, Clow baten ikuspuntutik inozentziatik landuta.

Maiatzak 13 larunbata 22:30etan • Sarrera: dohainik

Orratx! (Lezo) (KUTXAK BABESTUA)

“Zozoak beleari ipurbeltz”

“Zozoak beleari ipurbeltz” du izenburu eta bost zati edo atalez osatua dago; lehenengo hirurak hiru gizonezkoren bakarrizketa bana dira, laugarrena emakume batek aurrekoiez egiten duen laburpen gogoeta, eta azkenekoa berriz, bost emakumek gizonezkoei buruz izango duten solasaldia da.

Antzezlanak Orratx!lek moldatu du handik eta hemendik bildu eta jositako antzezlan txikiak. Gehienak “El club de la comedia”ko autoreenak dira, egile batenak baino gehiagorenak alegia.

Maiatzak 19 ostirala 22:30etan • Sarrera: 5 euro

Arrese teatroa

“Larru haizetara”

Sigmund Freud-ek esan zuen “euskal-sexoa” sintagma kontra-esanguratsua zela bere terminoetan. Arquímedes-ek ezarria zuen bere garaian oraindik indarrean dagoen lege fisiko bat, erdaraz ezagunagoa egiten zaiguna: “La ley de vascos comunicantes: Euskaldunak, infinituraino iritsi arren sekula gurutzatzen ez diren linea paraleloak dira”

LARRU HAIZETARA barre-terapeutikoa da, dibertigarria, zorrotza, eta modernoa, baina batez ere BEHARREZKOA. Izan ere, euskaldunak oso atzeratuta gaude sexu kontuetan. Joan zaitez Londresera, zer daramate idatzita neska-mutilek alkandoratan? “I love sex”. Edo joan zaitez Parisera: “Je suis un machine sexual”. Joan zaitez Sevillara: “Nasio pa ligar” Joan zaitez Cadizera: “Nasio pa bacilar” Joan zaitez Azpeitlari: “Nazio... eztabaidagunea”

Gainera, onar dezagun euskara hizkuntza maitagarria izan arren nazioarteko testuinguruan pisu gutxi duela (oraindik). Edonon esan daiteke “Voulez vous coucher avec moi”, esate baterako, eta denek ulertuko dizute. Gaztelania bera ere oso internazionala da. Esan munduko edozein bazterretan “Aserejé ja deje ejebe to the jerebe say nouva majabi on the boogie and the buguiri” eta tira, ligatu agian ez duzu ligatuko, baina zutaz gogoratuko dira. Baina joan zaitez atzerrira, esaiozu norbaiti: “Nik zu zaitut maiteago arraitxoak ura baino”, eta ... Ez, euskara ez da oraindik bere goi gradu-ra igo. Eta guk ere Etxeparek zioen bezala, aldarrikatu nahi dugu: “Euskara, jalgi hadi plazerrera”

Maiatzak 20 larunbata 22:30etan • Sarrera: 5 euro

Lakrikun antzerkia [Azpeitia]

“Iñor ezelako kolgauta egotetik libratzen”

Abuztu batean, Alacantera joan ginen oportetara. Han, euskaldunetz betetako eraikin batean, apartamentutxo bat alokatu genuen. Egia esan, hotel batetara joatea nahiago genuen, baina sosek ez ziguten hainbesteraino ematen. Ez ginen batere damutu.

Eraikinaren goiko terrazara igo ginen bazkalondo batean, eta berehala konturatu ginen, aspaldiko urteetako oporrik dibertigarrienak izango zirela Alacanteko haiek.

Apartamenduan, txikia izanagatik ere, gela bat hutsik geratu zitzaigun. Zergatik ez zatoz gurekin oportetara?

Maiatzak 26 ostirala 22:30etan • Sarrera: 5 euro

Txalo Teatroa

“Erreleboa”

1985. urteko negua. Algeziraren bi lagun soldaduskan. Ez, bi ezagun edo lagun egingo diren bi ezezagun. Edo elkar ezagutzeko aukerarik ere izango ez duten bi lagun. Azken finean bi euskaldun etxetik kanpo. Bata soldaduska amaitzekotan. Bestea hasi berritan. Esperientzia, inozentzia, adiskidetasuna, inbidia, borroka, leialtasuna... denak batera, denak gau batean. Bata bestearen kontra eta bata bestearekin bat. Esperientziak konpartitzeko, bizipenak eta biziminak kontatzeko gau aparta. Agustín eta Joxe soldaduskaren esklabu. Bizitzaren morroi. Jaioterriaren karga. Etxekoan nostalgia. Batzutan bizi, bestetan motel, hau da Algeziraren gau bat. Gau hotz bateko erreleboa.

Maiatzak 27 larunbata 22:30etan • Sarrera: 5 euro

Goizeko izarra [Mutriku]

Kanpokoekin uso, etxekoekin ... / Titirinashaste II

Familia bateko gorabeherak erakusten dituen komedia da. Obraren giltza etxekoandreak darabena, amak, baina etxeko arazoak konpontzeko bere burua ez du gai ikusten eta laguntzaile psikonalista bilatzen du. Honen kontsejuak itxu-itxuan jarraituz familiako kide guztiak bere esanetara jarri nahi ditu, besterik ezean mehatxuak erabilita. Baina gauzak ez dira berak erabakitako bidetik joaten eta azkenean, inondik inora espero ez duen lekutik datorkio ustekabea eta disgustoa....

HAUR ANTZERKIA ▼

Maiatzak 17 asteazkena 10:00etan

Herri Eskolako haurrak

Letrak dantzan

Jarraian

Pasaia Lezo Lizeoko haurrak

Txontxongiloa

Euskal Antzerki Topaketak burutzeraz goazela, ezin ahaztu, ezin kanpoan utzi gure txikiak. Bai Herri Eskolan bai Pasaia Lezo Lizeoan denbora daramate euren obratxoak lantzen, euren lanak prestatzen. Emanaldiak goizez izango dira, bata bestearen atzetik, eskola ordutan. Aukera paregabea beraien lehen urratsak ematen hasteko.

Maiatzak 28 igandea 17:00etan

Txalo Teatroa (KUTXAK BABESTUA)

Cantervilleko mamua


Oscar Wilderen ipuin ezagun eta arrakastatsuenak Ingalaterrako gaztelu batera bizitzera doan ohiko amerikar familia baten bizimoduaren berri ematen digu. Gaztelu hori, ordea, Cantervilleko mamu izugarriaren bizitokia da. Familiak, eta batez ere umeei, mamua zapuztuko dute, izutu beharrean haren kontura primeran pasatu eta barrabaskeriak egingo dizkiotelako. Azkenean mamua Otis familiaren alabaren adiskide egingo da eta neskatoak betiko errari ibiltzeko zigorretik libratuko du, bakean atseden hartzeko aukera emanez.

Lezoko zine agenda

MAIATZA

MAYO

2006



Gezalla


AUDITORIUMA

800
ma
zine

Osteguna / Larunbata **2,00 €**

Larunbata 16:30etan **1,00 €**


OSTEGUNA • jueves



SPACE COWBOYS

Eastwood antzezle lanak ikusita astapotro baten irudia sortarazi zuela ezin ukatu, Harry edo bakero lanetan beti tiroak eta kolpeak banatzen ezagutu dugu. Halere, askorentzat ezusteko handia izan da heldutasunera iritsi eta zuzendari lanetan hasi denean kolpeak emateaz gain, zer esanik baduela jakin genuenean. Pelikula honetan esaterako, zahartzaroan dauden lau pertsonen ametsetaz dihardu barregarri geratu gabe. Antzezle talde zaharra baina benetan apartekoa.


2000, EEBB. 130 min. Clint Eastwood.
Clint Eastwood, Tommy Lee Jones, Donald Sutherland, James Garner.



MYSTIC RIVER

Jimmy, Dave eta Sean gaztetatik ezagutzen diren hiru lagun dira. Haurtzaroko gertaera hura eta gero bide ezberdinak hartzen dituzte, urte batzuen ondoren hiruetako baten alaba hilik azaltzen den arte. Eastwood zuzendariaren beste lan borobila, luxuzko antzezle taldea, istorio tinkoa eta ongi eraikia. 2004ko Oscar sarietarako 6 izendapen zituzten. Bi jaso zituen: Antzezle hoberenagatik (Sean Penn) eta bigarren mailako antzezleagatik (Tim Robbins).


2003, EEBB. 137 min. Clint Eastwood, Tim Robbins.
Sean Penn, Kevin Bacon, Laurence Fishburne, Marcia Gay Harden, Laura Linney.



MILLION DOLLAR BABY

Eastwood-Swank-Freeman trinitateak, sailkatzeko lanak zailtzen dituen gaia landuz, gutxitan ikusi daitekeen norgehiagoka artistikoa eskaintzen digu. Gizarte mailako gaurkotasuna duten hainbat arazo ezberdinak ikuspuntu konprometituarekin ukituz, ia guztia borobiltzen duen pelikula zuzentzea lortu zuen Eastwoodek. 2005ean Oscar sarietan 4 sari garrantzitsuenak irabazi zituen: Pelikula, zuzendari, emakumezko antzezle eta antzezle laguntzaile hobereenak, hain zuzen ere.

2004, EEBB. 132 min. Clint Eastwood.
Hillary Swank, Clint Eastwood, Morgan Freeman.




INSOMNIO

Pelikula honek interesa piztu dezakeen hiru puntu ditu: Nolan zuzendaria, Pacino-Williams-en arteko pultsoa eta Hillary Swank. Lehen puntuari dagokionez, Nolanen lehen pelikula 'Memento' (zentzu bikoitzean) zoratzeko moduko hura ikusi genuenok bere bigarren lanaren nondik-norakoak espero genituen. Emaizta: 'Insomnio'. Antzezle mailan, Al Pacino-Robin Williamsen, biak ere zine munduko bi munstro, arteko lehia oso interesgarria suertatzen da. Eta azkenik, Oscarra irabazi aurretiko Hillary Swank xumea. Nahiko osagai interesgarri baditu beraz!

2002, EEBB. 118 min. Christopher Nolan.
Al Pacino, Martin Donovan, Robin Williams, Hilary Swank.

LARUNBATA • sábado



SUPERTRAMPS

Hirian barna ibiltzen dira noraezean. Jendeak botatako zaborretatik bizi dira. Kasu gehienetan zikinak eta nardagarriak dira, benetako baztertuak dira: arratoi, labezomorro, uso, kaleko katuak... Guzti horiek osatzen dute etxegabeko animalien erreinua. Umorez betetako alegia oso polita. Arrazakeria, pobrezia eta inmigrazioaz hitz egiten du modu atseginean, baina gaiari behar bezala helduz.


2004, EH. 74 min. Jose Mari Goenaga Iñigo Berasategi.
Marrazki bizidunak.



BEATRIX POTTER 2

Hiru ipuin kontatzen zaizkigu marrazki bizidun koloretsu hauetan: Perico eta bere lehengusu Benjamin, Txerritxo atsegina eta, Andrea eta Jeremias Arrainak jauna. Lehenengoan Periko untxiaren istorioa kontatzen da: baratzean sartzen da hori ezin zuela egin jakinda. Bigarrenean Txerritxo atseginak ez zuen etxea utzi nahi baina azkenean amore eman beharko du. Azken istorioa berriz, Luzia etxetik atera eta bidean aurkitzen dituen pertsonai ezberdinekin izandako harremanek osatzen dute.

2003, EB. 78 min. Geoff Dunbar.
Marrazki bizidunak.




HARAN SORGINDUAREN BILA

"Hankatxo" amarengandik aldendu duten brontosaurioa da. Triste eta bizitzari nola aurre egin behar horretan, badaki badela nonbait "haran handia" izeneko leku bat. Bertan janaria eta edaria nahi adina aurki daiteke. Leku aproposa beraz brontosaurio heldua izan bitartean bizitzeko. Kontua bertara iritsi behar dela da. Bidean lagunak elkartuko zaizkio, baina baita etsaiak azaldu ere. Kolorez eta abenturaz beteriko filme hunkigarria!

1988, EEBB. 70 min. Don Bluth.
Marrazki bizidunak.

EMANALDIRIK EZ DAGO

ESKOLA EGUNA



TRAINING DAY

Polizia hasi berria eta urteak daramatzan beste baten arteko lan-harremana da pelikularen ardatza. Los Angeleseko droga munduaren barrualdean murgiltzen dira bi poliziak eta bakoitzak legez kanpoko jarduera horri aurre egiteko ikuspuntu ezberdinak dituzte. Ikuspuntu ezberdin horien tentsioa da pelikularen bizigarria. Buruz ari garen arren, Denzel Washington izango da bi Oscar irabazi dituen antzezle beltz bakarra. Pelikula honengatik aktore onenaren saria irabazi zuen 2000. urtean.

2001, EEBB. 120 min. Antoine Fuqua.
Denzel Washington, Ethan Hawke, Scott Glenn, Tom Berenger.

EMANALDIRIK EZ DAGO

EUSKAL ANTZERKI TOPAKETA

Orratx! Antzerki Taldea (Lezo)
"Zozoak beleari ipurbeltz"

EMANALDIRIK EZ DAGO

EUSKAL ANTZERKI TOPAKETA

Lakrikun antzerkia [Azpeitia]
"Iñor ezelako kolgauta egotetik libratzen"

EMANALDIRIK EZ DAGO

EUSKAL ANTZERKI TOPAKETA

Goizeko izarra [Mutriku]
Kanpokoekin uso, etxekoekin ... / Titirinashaste II

MAIATZA - mayo

eguna/dia	ordua/hora	pelikula
OSTEGUNA 4	22:00	SPACE COWBOYS
LARUNBATA 6	16:30	SUPERTRAMPS
LARUNBATA 6	22:00	TRAINING DAY
OSTEGUNA 11	22:00	MYSTIC RIVER
LARUNBATA 13	16:30	BEATRIX POTTER 2
LARUNBATA 13		EMANALDIRIK EZ DAGO
OSTEGUNA 18	22:00	MILLION DOLLAR BABY
LARUNBATA 20	16:30	HARAN SORGINDUAREN BILA
LARUNBATA 20		EMANALDIRIK EZ DAGO
OSTEGUNA 25	22:00	INSOMNIO
LARUNBATA 27		EMANALDIRIK EZ DAGO
LARUNBATA 27		EMANALDIRIK EZ DAGO

AUDITORIUMA

Gezala